

«ETA asesina»

Ikaragarria, uste dut, ikaratzeko gauza bat da. Ikaratzekoa benetan: Aragoekoa deitzen dioten geltokitik irten, zuzenean sartu naiz telefono batetan, puskaturik bait zegoen, kalean behera joan behar izan dut beste kabina baten bila. Puskatua hau ere. Sartu hirugarrenean, «ETA asesina» hemen ere... Marka duk hauxe! Jakin behar diat, bada, Barcelonan inon ba al dagoen telefonatzerik, begien aurrean «ETA asesina» bat eduki gabe. Hiru kabinatan sartu eta hiruretan «ETA asesina», letra berdin-berdinez.

Catalunya Plazatik gora, ez dakit zenbait kabina pasa ditudan «Paseo de Gracia»n, «ETA asesina» irakurriz. Baten-bat ibilia da hemen kabinak dekoratzen.

Igande goizean Katedralera urreratu naiz. Ez dago ordu hobetik, koruko aukiteria eta, miresteko. Beste txokoak ere orduan egoten dira argituta. «Es más fácil organizar la guerrilla contra los contrarios, que organizar la industria, organizar la agricultura», etab.: kontxo, kanta zahar hau sermoian ere! Barcelonako Katedralcan, hamabietako mezatan. Urtarrilak 28a zuen.

Irten, sardana ikusi, buelta bat ematera noa: katedralaren hormetan ere ibilia da gure pintorea. Eta handik atzerako kale baxtarretan, Aingeruaren Portalean, eta... Saiatu da norbait hementxe. Ikara larri haundiak pasa ote zituen, pintura klandestino horiek egiterakoan? Harrapatu ote zuen, gero, poliziak, gaiztagin hori?...

Bestelako buruhausteak ziren, Barcelonara ekarri nindutenak. Baina begietatik, belarrietatik eta sudur zuloetatik ere, nahi baduzu eta ez baduzu, horixe sartzen dizute, euskalduna baldin bazara. Barcelonan hori bada, zer ote da Madrilan? Susmoa daukat, norbaiti entzuna edo irakurria diodala noizpait, Estatuko herri diferenteek elkar aditzeko eta beste herriek Euskadiren inpresio oker bat ez edukitzeko, ahalegindu nahi omen dutela beraiek. Holaxe sortzen da, apika, Euskadiren eta Euskadiko problemen irudi on bat, Barcelonan. ■ *Gabriel Noss.*

«Metropoli» Moskun

8 aletako aldizkari daktilografiatu bat (21 x 29 zm. eta 120 or.) garrantzizkoa izan al daiteke?

Bai, nonbait, kondizio pare batekin: Sobiet Batasunean sortua izatea eta aldizkari anti- edo ez-ofiziala izatea.

Ez dakit zein neurritan merezi duen inportantzia ematea, baina Mendebaleko zenbait aldizkari eta egunkarik baietz pentsatu du. Ez zaie beharbada horretarako arrazoirik falta.

5 editorearen artean atera dute aldizkari hau, zirkuitu ofiziale-tik kanpo, zentsurarik gabe. Almanaka bezala atera dute. 23 idaz-le sobietikok parte hartzen du. Amerikanu batek ere bai. METRO-POLI du izena (alegia, «hiriburu», «metro» eta izen bereko Mos-kuko hotel ezaguna).

Aldizkari honen sortzea, «matxinada» gisa kontsideratua izan da Moskun. Zeigatik? Idazle oso ezagunak direlako asko. Are gehiago: «Idazleen Elkarte»ko partaide direlako asko. Idazle hauen oposizioa ez da, hala ere, haustura edo etena. Idazle hauek ez dira «disidenteak», konformagaitzak dira.

Aldizkari honen bidez, zubi izan nahi dute idazleok. Literatura debekatuaren eta ofizialaren arteko zubi. Literatura ofiziala, hauentzat, inertzia astun baten menpe dago, monolitikoegi da, ez du aspaldi batetako alturarik. Mendebalean argitaratzen den literatura debekatuaren aurka egon ez daude, baina diotena hau da: literatur-lan hori ez dela literatur-irizpidez epaitzen baizik eta politikazki. Horren kontra daude.

Gai zuzenki politikorik ez dago aldizkarian. Aldizkari ofizialtan erabiltzen ez den gai asko, bai: Jainkoa, heriotza, erotismoa, sexua, mozkorra... Gauza kurioa: METROPOLIra zuzenean idatzi den artikulu guti dago. Artikuluok Redakzioz Redakzio ibiliak dira. ■ *Joanes Lekerika.*

Polizia Euskadin

Poliziako hiru besoak dira: CGP, Cuerpo General de Policía; PA, Policía Armada; GC, Guardia Civil. Bestelako polizia eta goardia motak alde bat uzten ditugu (sekreta, foral, munizipal, etab.). Prentsan ikusi dugunez, 78. urtea bukatu duguncan, holako 8.200dik gora genituen Euskadin:

ARABA:	60 — CGP	
	350 — PA	
	527 — GC	937
BIZKAIA:	360 — CGP	
	1.469 — PA	
	1.382 — GC	3.211
GIPUZKOA:	170 — CGP	
	769 — PA	
	1.389 — GC	2.328
NAFARROA:	95 — CGP	
	420 — PA	
	1.228 — GC	1.743

Prentsa horrexek 79. urtearen hasieran jakinarazi digu, egun ho-